

AMETSEN ETXEA

Zer egin haur eta nerabe ijito nafarrak beren bidean laguntzeko?

Maria Borja eta Bea Seguro-la Gaz Kaloko langileak dira. Iruñeko Buztin-txuri auzoko bulegoan, Gipuzkoa Etorbideko 40. zenbakian ireki duten “Ametsen etxea” erakusketaren dinamizatzailea eta gida da lehena, gizarte langilea da bigarrena.

Federazioak bi urte daramatza Sevillako Unibertsitatearekin elkarlanean. Hona etorri ziren haur ijitoak laguntzera, ikasketetan eta beren helburretan motibatuzera, eta hara gonbidatu zituzten, “La Casa de los Sueños” erakusketa ezagutzera. Hainbertze gustatu zitzairen, non hona ekarri baitzuten ekimena.

“La Caixa” gizarte ekintzak eta Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Sailak finantzatu dute. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren babesa ere badu.

Idea Sevillatik ekarri bazuten ere, erakusketa hagitz ezberdina osatu dute. Zazpi paneletan, Nafarroako hainbat herri eta adinetako 23 haur eta nerabe ijitok handitan zer izan nahi duten azaltzen da. Beren logela izan zitekeena ere irudikatzen da, bi oherekin. Gutxienez maiatzera arte egonen da zabalik, eta gehiago luzatzea espero dute.

HAUSNARTU

Gogoeta piztea da xedea. Irakasleak, ikastetxeetako bertze langileak eta erakundeetako kideak haur eta nerabe ijitoen zapatetan jartzera gonbidatzen dituzte. Horretarako, tailerrak proposatzen dituzte, bisitarien arabera egokituak. «Ideia da hausnarketa batekin

 **KULTURA** / Maider IANTZI GOIENETXE

«Ametsen etxea» haur eta nerabe ijito nafarren ametsak biltzen dituen erakusketa da, bisitariak haien zapatetan jartzera eta gogoetatzen gonbidatzen dituen. Gaz Kalo Nafarroako ijito elkarten federazioak sortu du, eta Iruñeko Buzintxuri auzoko bere bulegoan dago. Gutxienez maiatzera arte egonen da zabalik.

ateratzea: zer egin dezaket, heldu gisa, nagoen tokitik, haur hauei beren ametsak betetzen laguntzeko? Zein da gure lana, erakunde publiko edo ikastetxe gisa, bidean laguntzeko?», adierazi dute Borjak eta Seguroak.

Gaz Kaloren datuen arabera, Nafarroan 8.000 ijito inguru daude, eta horietatik kasik erdiak 16 urtetik beherakoak dira. Gazte aunitz dira biztanleria orokorrarekin alderatuta. Kontuan izan behar da datuak

gutxi gorabeherakoak direla, ijito guztiak ez daudelako identifikatuta.

Hamar haurretik zortzik ez dute Bigarren Hezkuntza bukatzen, eta horri buelta emateko ahaleginean ari dira, ederki frogatua dagoelako ikasketarik gabe bizimodu okerragoa izanzen dutela.

Erakusketan parte hartu duten haur eta nerabeak Gaz Kalokoak edo federazioaren ingurukoak dira. 13 ijito elkarte biltzen dituen federazio ho-

Ibilbide bat egin dugu areto eder honetan barrena, haur eta gazteak eta beren ametsak ezagutzen joateko.
Aitor KARASATORRE | FOKU
- GAZ KALO

nek 23 urte daramatza ijito herriaren alde lanean. Aurten, haur eta nerabe ugariren ametsak jasotzea lortu dute. Tuterara, Iruñea, Tafalla, Zangoza, Lizarra... Nafarroako hamaika herritakoak dira.

AMESTU...

Ibilbide bat egin dugu areto eder honetan barrena, haur eta gazteak eta beren ametsak ezagutzen joateko. Brandon, bost urtekoa, Iruñea erdialdean bizi da eta suhiltzaile izan nahi du. Tuterako Adrianak Lehen Hezkuntzako hirugarren maila ikasten du eta abokatu ona izatea du amets. Arrotxapeako Pedrok eta Tafallako Ismaelek futbolari izan nahi dute, baita hiru urteko Unai ere.

San Adriango Ainararen bokazioa irakasle izatea da, eta Indirarena eta Violetarena ere bai. Dinak ingeleseko irakasle izan nahi du zehazki.

Ane tuterarrak karate entrenatzaile izan nahi luke. DBHko lehen mailan ikasten duen Sorayak, albaitari. Lehen Hezkuntzako laugarren mailan dagoen Victorrek, rock talde bateko kide.

Bigarren DBHko Laurak, andosillarra bera, psikologo izan nahi du, eta Gisela tafallarrak bere denda atera nahi du aurrera. Amarak arkitekto izan nahi du. Naiarak, medikua, eta Sarak, sukaldaria.

... ETA BETE

Batzuek bete dute beren ametsa. Jessica Maria Borjaren alaba da, 20 urte ditu. Administrazio kudeaketako bigarren urtea egiten ari da, modelo izan nahi du eta dagoeneko lehiaketa bat irabazi du. Nadia 21 urteko tuterarrak erizain izateko ametsa bete zuen, eta La Romaní ijito elkartean ari



da lanean. Sheilak erdi mailako gradua egin zuen, eta gizarte langilea da.

Erakusketaren asmoa da ametsetan motibatzea eta laguntzea. Eta, hagitz garrantzitsua, erreferenteak eskaintzea. «Txikienek ikus dezatela ametsak lor ditzaketela, besteek lortu dituztelako».

Borjak eta Seguiolak nabarmendu dutenez, haurrek ereduak falta dituzte, baina gero eta gehiago ari dira sortzen. «Urteetako lanaren ondorioz, emakume erreferente asko ditugu. Poliki-poliki gauzak aldatzen ari dira».

SARRASKIAREN LORRATZA

Unicef elkarteak kezka azaldu du haur ijitoek sufritzen duten pobrezia handiagatik. Babes sistemak indartzea, eskola porrot eta absentismo tasa altuei aitzin egitea, hezkuntza publiko eta kalitatezko bat jasotzeko duten eskubidea bermatzea eta indarkeria mota

Gaz Kaloren datuen arabera, Nafarroan 8.000 ijito inguru daude, eta horietatik ia erdiak 16 urtetik beherakoak dira. Gazte aunitz dira biztanleria orokorrarekin alderatuta

Hamar haurretik zortzik ez dute Bigarren Hezkuntza bukatzen, eta horri buelta emateko ahaleaginean ari dira, ikasketarik gabe bizimodu okerragoa izanen dutelako

guztien aurrean adin txiki-koak zaintzea proposatu ditulanildo gisa.

«Oro har, ijito herriak hainbat jazarpen pairatu ditu bere historian. Horren erakusgarri da kalo hizkuntza ez dela ia hitz egiten Espainian, bai, ordea, Europako beste toki batzuetan. Familia ugari baztertuak dira edo arrisku horretan daude», esplikatu dute “Zure ametsen etxea” ekimenaren bultzatzaileek. Halere, estereotipoek kontrakoa dioten arren, ijito herria hagitz anitza dela

azpimarratu dute, baita Nafarroan ere.

AURRENEKO BISITA-TAILERRAK

Orain, lehendabiziko bisita-tailerrekin hasi dira Buztin-txurin. Haurrekin, emakume taldeekin, irakasleekin eta parlamentariekin ari dira, eta bakoitzak bere ikuspegitik hausnartuko du.


Ikerketa-ekintza metodologia darabilte, erakusketa hau desberdinkerari, bazterketa sozialari eta ijitoen kontrako arrazakeriari aurre egiteko tresna bat delako.

Haur eta nerabe ijito nafarren azalean jartzeko hainbat dinamika proposatzen dituzte. Horietako bat motxilarena da. Zamaz betetzen dute pixkanaka, eta pisua sentitzen dute: emakume izatea, ijito izatea, etxebizitzarik ez izatea, bananduta egotea, ikasketarik ez izatea... Hortik etorriko da gogoeta: denok ez daramagu motxila bera.

ESTEFANIA RUIZ

Estefania Ruiz gaztearen bideoa ere ikusgai dago “Ametsen etxea”-n. Hala kontatzen du bere bizi esperientzia: «Zaila da ijito izatea. Esaten dizuten lehendabiziko gauza da: ez duzu ematen (ilehoria da bera, eta ikasketak ditu). Lehen Hezkuntzako lehendabiziko mailan eskolako kideek uste zuten etxola batean bizi nintzela. Jendearentzat ijitoak jendilajea gara, analfabetoak, lapurrak. Ni harro sentitzen naiz ijito izateaz».

27 urte ditu. Familia umil eta langile batekoa da. «Nire gurasoek ez didate inoiz ezkutatu ijitoa naizela, ez dit barne gatazkarik ekarri. Jaio-tzean, batek ez daki zer den arrazakeria. Umetatik entzun izan dut nire lagunak ilea moztera derrigortzen zituztela luzea uzten bazuten ijitoak emango zutelako. Irakasleek esaten zuten: ijito bat ikusten baduzu, aldatu





espaloiz. Badakit zer den la-
gun bat etxe bila joan eta bel-
tzarana izateagatik etxe bat
ere ez alokatzea».

«Gure herriaren parte batek
egoera zaila bizi du, eta horrek
badu bere arrazoa: mendeta-
ko sarraskia eta esklabotza».

Gizarte integratzailea da Es-
tefania, eta horretan lan eginez
gauza harrigarriak gertatu
zaizkio. Bi urtez aritu zen eta,
zintzoki, jasaten zituen ko-
mentario arrazistengatik eta
egoerengatik utzi zuen. Adibi-
dez, berak lan egiten zuen
etxeko familia bati erran zio-
ten umea ezin zela bere etxe
ondoko ikastetxera joan ez ze-
lako ijitoena.

Ijito herria eta bere historia
ikusarazteko sortu zuen Rui-
zek bere marka: “Mil duquelas
puro arte”. «’Duquela’ pena,
nekea da, eta pentsatzea sa-
rraskia jasan duten emaku-
meek hortik artea atera dute-

la... Badira poetak, idazleak,
pintoreak, aktibistak, politika-
riak, zoragarria da!».

Bere erreferente nagusiak
ama eta izebak dira, Madrilgo
Pan Benditon hazitako ema-
kume ijitoak. Klasismoari, iji-
toen aurkako jarrerai eta ma-
txismoari egin behar izan
diote aurre.

Estefaniak emakume ijitoei
erranen lieke errebelatzeko, ez
uzteko inori nolakoak izan
behar duten eta nola bizi

Bea Seguro eta Maria
Borja Gaz Kaloko langileak
dira. Gizarte langilea da
lehena; erakusketaren
dinamizatzailea eta gida,
bigarrena.
Aitor KARASATORRE / FOKU

**«Atzera begiratzean ohartzen gara zenbat
eboluzionatu dugun: lehen, Haur Hezkuntzako
matrikulazioez aritzen ginen; orain, DBH eta
Unibertsitateko», diote Segurolak eta Borjak**

**Funtsezkoa iruditzen zaie ulertzea eskola
porrota eta bazterketa sufritzen dituztela siste-
matik kanpo gelditzen direlako eta, hain zuzen,
horixe dela nahi ez dutena**

ratzea nahi lukete, eta elkarre-
kin aliatu gisa aritzea. Zer egin
daitekeen, nola egin daitekeen,
eta nola ez, gogoetatzea, hi-
tzen garrantziaz jabetzea.

«Gehiago hurbildu behar
dute guregana; ez dugu ausiki-
rik egiten. Esate baterako, ger-
ta liteke gurasoek haur ijito
bat eskolara ez eramatea aito-
na gaixotu delako eta familia-
ren lehentasuna haren osasu-
na delako. Batzuetan, ez dira
halako portaerak ulertzen»,
adierazi dute erakusketaren
bultzatzaileek.

Gaineratu dute ume eta ne-
rabe ijitoentzat, ikasteaz
gain, garrantzitsua dela be-
ren burua defendatzen jaki-
tea, eskubiderik gal ez deza-
ten. Adibidez, nola egin aurre
komertzio batean jasandako
eraso arrazista bati edo nola
jarri salaketa bat.

Jendarte gisa, funtsezkoa
iruditzen zaie ulertzea eskola
porrota, bazterketa eta gaine-
rako item negatibo guztiak su-
fritzen dituztela sistematik
kanpo gelditzen direlako eta,
hain zuzen, horixe dela nahi
ez dutena.

«Saretu beharra dugu: de-
nok bat egin, ijito haurrei di-
tuzten ametsak betetzen la-
guntzeko, gainontzeko haurrei
bezala. Gaz Kalok zubia izan
nahi du ijito diren eta ez diren
familientzat, baita erakunde
publikoentzat ere. Mantso,
baina bagoaz aurrera. Baditu-
gu emakumeak gizarte lanean
ari direnak, eta hori federa-
zioan lortu dugu. Ulertu behar
dugu, eta uste dugu jendar-
teak ulertzen duela, aldaketa
motelak direla burukoak, ins-
tituzioenak eta burokraziare-
nak. Baina atzera begiratzean
ohartzen gara zenbat ebolu-
zionatu dugun: lehen, Haur
Hezkuntzako matrikulazioez
aritzen ginen; orain, berriz,

behar duten erraten. Bihotzez,
harro dago guztiaz: jatorriaz,
familiaz, 25 urterekin bere en-
presa sortu izanaz. «Gauza as-
ko egin ditut, jende askok ezin
nuela esan arren».

«Ijitoak pertsona gisa trata-
tzen gaituztela amesten dut.
Gaiztoa bazara gaizto izateaga-
tik epaitzen zaituztela, eta ona
bazara on bezala hartzen zai-
tuztela, berdin du ijitoa edo
beltza zaren».

ALIATUAK

Izan ere, ijitoek arrazakeria su-
fritzen segitzen dute oraindik.
Maria Borjak eta Bea Seguro-
lak beraiek ere bizipen ugari
dituzte kontatzeko estereotipo
eta aurreiritziekin lotuta. Adi-
bidez, dendetan segurtasun
langileekin izandako arazoak.
Gaz Kalo federazioak halako
erasoak salatzen ditu.

Ijito ez direnak ijito izateaga-
tik daramaten motxilaz kontu-

NADIA: «BESTEEK LORTU BADUTE, NIK ZERGATIK EZ?»

“Zure ametsen etxea” ekimeneko protagonistetako bat da Nadia Hernandez. Tuterarra da, 21 urte ditu, Gaz Kalo federazioko kidea da, eta gizarte heziketako monitorea. «16 urtetatik ari naiz lanean. Eragile bezala hasi nintzen, eta denetarik izan naiz: kutxazain, lurrin denda bateko saltzaile, fabrikako langile eta ospitaleko erizain laguntzaile, horretarako gradua egina baitut», kontatu digu.

Orain arte ikasteari, bidaiatzeari eta lan egiteari eskaini dio bizitza. 18 urtetatik gidatzen du bere autoa. «Ijito izateagatik ez dut mugarik izan. Mugak norbere buruan sortzen dira».

Gizarte integrazioa ikasi nahi du. Jakin-min handia du gauza berriak deskubritzeko, bidaiatzeko, kultura ugariz aberasteko.

«Nire buruaz oso harro nago. Erakusketan ikusteaz ere bai. Ez dut beste munduko ezer lortu, baina ikasten jarraitu dut, hori ez zela ijitoentzat entzun arren, familiaren babesarekin eta naizen bezalakoa naizelako: berdin zait, lortu dut, bidean topatu ditudan oztopoak gaindituz».

Nadia konbentziturik dago erakusketak fruitu aunitz emanen dituela. Haur eta nerabe ugariri ametsak sortuko zaizkie, beren burua islatuta ikusiko dute bertze batzuegan, eta pentsatuko dute: haiek lortu badute, nik zergatik ez?

Haurra zenean, amets pila bat zituen Nadiak: irakasle izatea, idazkaria... baina inoiz ez ikasi zuena, erizain laguntzailea. «Bizitzako gorabeherengatik Administrazio ikasketei uko egin nien, nahiz eta hori izan berez nahi nuena. Erizaintzan gozatu egiten dut».

Beti izan ditu ametsak, eta amaren bultzada. «Zuk bidaiatu, ez ezkondu. Atera, ikasi, joan eskolara, borrokatu», animatu izan du. «Ijitoa naiz eta ez dut amak adinako arrazismorik sufritu, baina sufritu dut. Horren ondorioz, esaten nuen ez nuela ikasi nahi, ongi nengoela etxean. Eta amak: animo! Borrokatuz gero, lortuko duzu. Nire herriak ametsak betetzea nahi dut, ez daitezela desmotibatu norbaitek ijitoek ez dutela ikasten esan dielako».

«Agian, babesik ez baduzu, gehiago kostako zaizu. Zer esanik ez denak eragiten dizun adin horretan. Ni tristatu egiten nintzen, baina azkenean gogorragoa egiten zara». Osaba Richarden laguntza ere eskertu nahi du Nadiak.

«16 urte nituela, aita galdu nuen. Laugarren mailan nindoan eta hilabeteak egon nintzen joan gabe. Oso gaizki pasatu nuen. Ikasgaiak errekuaratu behar izan nituen, bigarren hiruhilekoa egunean eramane nuen, baina jakin-min horrek balio izan zidan; hainbeste babestu nintzen ikasketetan, non nota hoberenak atera bainituen».

Ikasteaz gain, garrantzitsua da beren burua defendatzen jakitea, eskubiderik gal ez dezaten. Adibidez, nola egin aurre komertzio batean jasandako eraso arrazista bati

Estefaniak emakume ijitoei erranen lieke errebelatzeko, ez uzteko inori nolakoak izan behar duten eta nola bizi behar duten erraten. Bihotzez, harro dago guztiaz

DBH eta Unibertsitateko. Al-daketa itzela da», baloratu dute Borjak eta Segurolak.

POLITIKA PUBLIKOAK

Nafarroako Gobernuak, haurren bazterkeriari eta pobrezari aurre egiteko helburuen artean, bi helburu zehatz markatu ditu: hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta inguru osasungarri, positibo eta seguruak sortzea. Bertako ordezkariak erakusketaren inaugurazioan azaldu zuten, jendarte bezala ezin

dugu onartu jaiotzen diren haur batzuek prekaritatea eta bazterkeria destino izatea. Politika publikoek denon zerbitzura egon behar dute, baina bereziki zailtasun handienak dituztenen mesedetan.

Gaz Kaloren nahia “Ametsen etxea” erakusketaren bidez Nafarroako ijito haur eta nerabeen garapena, ahalduntzea eta eskolako eta jendarteko arrakasta bultzatzea da. Honako helbide eta telefono hauetan hitzartu daitezke bisitak: info@gazkalo.org eta 948 13 10 01.

Nafarroako ijito haur eta nerabeen garapena, ahalduntzea eta eskolako eta jendarteko arrakasta bultzatzea da proiektuaren xedea.
Aitor KARASATORRE / FOKU

